

COMUNICADO PÚBLICO DEL AYUNTAMIENTO DE ISABA ANTE UN CASO DE AGRESIÓN SEXISTA SUCEDIDO EN ISABA

Ante la reciente agresión sexista sucedida en nuestro municipio, desde el Ayuntamiento de Isaba, queremos manifestar nuestra más enérgica condena y rechazo de la agresión, así como nuestro apoyo y cercanía hacia la víctima y su entorno poniendo a su disposición los recursos psicológicos, jurídicos, sanitarios, de protección y de acogida que requiera y garantizando que cuenta con toda la información que afecta a sus intereses.

En ese sentido, el Ayuntamiento de Isaba desde el momento que ha tenido noticia sobre el caso y tras contrastar la información que nos permitiera tener la visión más completa y certera posible sobre éste, se ha activado el PROTOCOLO LOCAL PARA LA PREVENCIÓN Y ATENCIÓN DE AGRESIONES SEXISTAS Y LGTBIQ-fóbicas, convocando una reunión de urgencia para recabar toda la información y coordinar la respuesta institucional y la atención a la víctima y su entorno.

Queremos insistir en que la violencia machista es una grave vulneración de los Derechos Humanos y un problema social de primer orden que atenta contra la dignidad y la integridad física y moral de las mujeres que la sufren y enfrentan. Esta violencia no es una acción o acciones aisladas, es un entramado de conductas explícitas, mensajes normalizados y simbólicos que estructuran nuestra sociedad con el objetivo último de mantener la subordinación de las mujeres a los hombres y de no permitir la existencia de ningún cuerpo, modelo y/o comportamientos que transgredan los límites marcados por el sistema heteropatriarcal vigente.

En ese sentido, el Ayuntamiento de Isaba como institución pública responsable de garantizar el ejercicio efectivo de los Derechos Humanos, seguirá impulsando las medidas dirigidas a que las Entidades Locales y la ciudadanía en general respondan de manera inmediata y contundente a cualquier agresión machista, se atienda de manera prioritaria a la víctima, se desarrollen actuaciones preventivas para dotar a las mujeres de instrumentos que les permitan hacer frente a la violencia y a no permitir la impunidad social de los agresores. Además, el Ayuntamiento se compromete a seguir apoyando y trabajando en el ejercicio de sus competencias, para garantizar vidas libres de violencia machista.

IZABAN IZANDAKO ERASO SEXISTA BATEN AURREAN IZABAKO UDALAK EGINDAKO OHAR PUBLIKOA

Gure udalerrian berriki gertatutako eraso sexistaren aurrean, I zabako Udaletik gure kondena eta arbuiorik irmoena adierazi nahi dugu, baita gure babesa eta gertutasuna erakutsi biktimari eta haren ingurukoei ere. Horretarako, behar dituen baliabide psikologiko, juridiko, osasun, babesgarri eta harrerakoak haren esku jartzen ditugu, eta haren interesei eragiten dien informazio guztia duela bermatzen dugu.

Alde horretatik, kasuaren berri izan duen une beretik, eta kasu horri buruzko ikuspegi ahalik eta osoena eta zehatzena izatea ahalbidetuko zigun informazioa egiaztatu ondoren, I zabako Udalak AGRESIO SEXISTA ETA LGTBIQ-fobikoei PREBENTZIOA ETA ARRETA EMATEKO TOKIKO PROTOKOLOA aktibatu du, eta premiazko bilera bat deitu du informazio guztia biltzeko eta erakundeen erantzuna nahiz biktimari eta haren inguruneari emandako arreta koordinatzeko.

Azpimarratu nahi dugu indarkeria matxista Giza Eskubideen urraketa larria dela, eta lehen mailako gizarte-arazo bat, indarkeria hori jasaten eta hari aurre egiten dioten emakumeen duintasunaren nahiz osotasun fisiko eta moralaren aurka egiten duena. Indarkeria hau ez da ekintza bakartu bat edo batzuk; portaera esplizituen, mezu normalizatuen eta sinbolikoen sare bat da, gure gizartea egituratzen duena emakumeak gizonen mende mantentzeko eta egungo sistema heteropatriarkalak ezarritako mugak igarotzen dituen gorputz, eredu eta/edo jokabiderik egotea ez baimentzeko azken helburuarekin.

Zentzu horretan, I zabako Udalak, Giza Eskubideen gauzatze eraginkorra bermatzeaz arduratzen den erakunde publikoa den aldetik, toki erakundeek eta, oro har, herritarrek edozein eraso matxistari berehala eta irmoki erantzuteko neurriak sustatzen jarraituko du. Horrez gain, biktimari lehentasunezko arreta ematea, emakumeei indarkeriari aurre egiteko tresnak emango dizkieten prebentzio-ekintzak garatzea eta erasotzaileen gizarte-impunitatea ez baimentzea sustatuko ditu. Gainera, Udalak bere eskumenen eremuan lanean eta laguntzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bermatzeko.